

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza kontseilari Maria Solanak Nafarroako Eskola Kontseiluaren “Hezkuntza espazioa” Jardunaldien irekieran parte hartu du

*Hezkuntza departamentuak 18.6780.358 euro bideratuko ditu 2018an zehar ikastetxeen eraikuntza, mantenua eta ekipamenduetan.*

Astelehena, 2018.eko martxoak 5

Maria Solana Hezkuntza kontseilariak ireki ditu Nafarroako Eskola Kontseiluaren “Hezkuntza eta espazioa” jardunaldiak. Gaur eta asteazkenera bitartean ari dira egiten jardunaldiok Nafarroako museoan eta erkidegoko hainbat ikastetxek parte hartuko dute euren esperientziaren berri emateko.

Solana kontseilariak beren beregi aipatu du ikastetxeen eraikuntzan Departamentuak darabilen eredu aldaketa, eraikin energetikoki eraginkorrak eta bestelako hezkuntza proposamenak hartzeko egokiak diren espazioak sortzeko. “2016tik egiten ari garen proiektu arkitektonikoen lizitazioek passivhaus eraikuntza motaren estandarrei jarraituta egiten dira; hau da, isolamendu termikoa, filtrazioen kontrola eta eguzki-energia sistemak erabiliz, ahalik eta gehien murrizteko energia kontsumoa”, adierazi du kontseilariak. Gainera, espazioen antolaketa ere zaindu egiten da “irakaskuntza metodologia berriak gauzatu ahal izateko” eta adibide gisa jarri du Arbizuko ikastetxe publikoaren Montessori metodologia.

Espazioen antolaketan inguruko hezkuntza esperientziak ezagutzera emateko jardunaldietan, kontseilariak adierazi du Hezkuntza departamentuak gehitu egin duela 2018ko inbertsioa, bai eraikuntzarako, bai mantenu nahiz ekipamenduetarako: 18.670.358 euro.



Hezkuntza kontseilaria Nafarroako Eskola Kontseiluaren “Hezkuntza eta espazioa” jardunaldian.



Jardunaldira joandako publikoa.

“Departamentuaren 246 ikastetxe publikoek dituzten behar anitzei erantzun egokiena eman nahi zaie, era guztietako ezaugarriak baitituzte: XIX. Mendeko eraikinak, Erronkariko ikastetxe publikoa kasu; edo udala edo-eta taberna eraikin berean hartzen dituen Iturengo erakina”, azaldu du Solanak.

Azkenik, Hezkuntzak egiten dituen eraikin guztietan hezkuntza komunitate osoaren inplikazioarekin egiten ari direla azaldu du, eta gehitu du “jardunaldi hauek hezkuntza maila guztiak hartu behar dituen espazioaren inguruan dauden sentsibilitate guztiak bistaratzeko erakusleiho bikaina” direla.